

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juana Lasa Jauregi

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1929)*

Aurkibidea



Biografia



Aldabako Arizmendi baserrian jaioa. Aita Aldabakoa zuen, eta ama Zaldibiakoa. Zortzi senidetan laugarrena.

Aldabako gain hartatik ikusi zuten Ikaztegietako apeaderoa eraikitzen. Hala ere, ez zuten Ikaztegietarako joerarik eta Alegiara edo Tolosara jo ohi zuten erosketak egitera. 16 urterekin neskame joan zen Orendaingo baserri batera. Han hiru urte pasa eta kalera joan zen neskame. Asteasuko senarra hartu zuen, eta Ikaztegietara joan ziren biak bizitzera.

Zintak

TOL-028

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-06-18
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Artetxe, Miren

TOL-029

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-06-18
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Garai bateko eta oraingo Aldaba eta Ikaztegieta

- **Erref:** TOL-028/003
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:01:19. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Garai bateko Ikaztegietari txikia omen zen oso, eta Aldabakoek joera gehiago zuten Alegiarako Ikaztegietaraino baino.

2. Aldabako igande arratsaldeak

- **Erref:** TOL-028/004
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:06:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Aldaban jende asko bizi zen, auzo txikia izan arren, eta igande arratsaldetan beti izaten zen ahoko soinua edo soinua handia jotzen zuen norbait, festa pizteko.

3. Ogia egiten hasi zirenekoak

- **Erref:** TOL-028/011
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:07:38. **Bukatu:** 00:11:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserrian eta baserritik bizi ziren aldabarrak. Gerra garaian behera egin zuen bizimoduak, eta orduan hasi ziren, esaterako, ogia erosi ordez etxean egiten, eta horretarako kontrabandoan ere bai.

4. Sinesmenak: ogiaren ingurukoak, tximistarengandik babestekoak...

- **Erref:** TOL-028/012
- **Iraupena:** 0:05:19. **Hasi:** 00:11:53. **Bukatu:** 00:17:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

Laburpena:

Ogiaren inguruko sinesmenak, soroen babesaren inguruko sinesmenak, tximista garaikoak, San Juan egunekoak...

5. Garizumako misioak eta infernuaren beldurra

- **Erref:** TOL-028/014
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:19:03. **Bukatu:** 00:22:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Garizuman misioak izaten ziren, eta sermoi gogorak entzuten zituzten kanpotik etorritako hizlarien ahotatik. Bekatua gora eta bekatua behera, beldurrez egoten ziren haiei entzuten.

6. Mariaren Alabak eta luistarrak: neskak eta mutilak, denak kongregaziotan

- **Erref:** TOL-028/015
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:22:22. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Neskak Mariaren Alaben kongregazioan izaten ziren, eta mutilak luistarren kongregazioan. Medailak izaten zituzten zintatik zintzilik, eta hilabetean behin hura jantzita joaten ziren kongregazioko mezara.</p>

Transkripzioa

- Ordu kongregaziok´e izango zien.

- Onbre! Kongregaziok? Zintakin juten giñen. Nik, oandik ez die urte asko, bota in nittun, baiño euki dittut kongregazioko zintak... beno! Ez dakit hamahiru-hamalau urtekin o hola jazten ziuena zinta hoi. Bitarten ez zan zintaik. Aurreneko komunioa ein eta gero izaten zan bigarren komunioa, hamahiru bat urtekin eo hola, hamabi-hamahiru urtekin. Eta aurreneko komunioa itten gendunen, juten giñen hillen lehendabiziko ostiralen jaune hartzea. Baiño ez gendun bat huts eitten, e! Eta gero, kongregazioa izaten zan hillen aurreneko igandea. Ta izaten giñen emakumek Marian Alabak, eta gizonak luistarrak.

- Ze koloretako zinta zan zuena?

- Urdiñe. Eta mutillek uste det zurie zuela.

- Eta medalla-o izaten zan?

- Onbre! Ama Birjiñan medallakin. Ta bere kaja txikik. Onbre, ahal zunak erosiko zittun, baiño. Medallan zinta bildu-bildu-bildu in ta kaja txiki hartan sartu ta gordetzen zan. Zea.

- Eta zer zenduen medalla danak igual-iguala?

- Ez. Beno, baiño danak gauza bat zeukean, danak zeuken Ama Birjiña.

- Baiño estilo diferentetakok.

- Bai, baiño danak igualtsuk, e? Danak igualtsuk.

- Eta nola izaten zan hoi? Bakoitzak erosi behar izaten zun?

- Bai, bai. Bai. Edo ez dakit... Ez, ez, erosi bakoitzek. Onbre, baiño danok... gurasok bazekien. Zinta hue erosi ta etxen medalla erantsi ta zinta jarri ta gero kaja ttiki batzuk izaten zien ta han sartu ta. Hue ezkondu bitarten. Eta ezkondu ta gero beste bat sortu zan —oain ahaztu´re in zait—, beste bat bagendun, zinta gorrie gendun. Baiño ez dakit medallan ze jartzen zun ez dakit. Baiño zinta... “apostolado” eo ez dakit [...]. Hoi ezkondu ta gero. Gaztetan beti “Hijas de María” ta “Hijas de Jesus” izaten zien. Eta mutillei esaten zitzaien luistarrak.

- “Hijas de Jesus” zer zan beste kongregazio tipo bat emakumeena?

- Izen horrekin zeatzen zan, ez dakit. Guk beti Ama Birjiña ibiltzen gendun. Gu “Hijas de María”. “Hijas de Jesus” izango zien mutillek izango zien. Mutillek zinta txurie zeken; guk urdiñe genduken.

7. Asteasun kongregaziotik botatako neskaren istorioa

- **Erref:** TOL-028/016
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:27:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Asteasun gertatutakoa kontatzen du. Neska gazte batek lotuan dantza egin omen zuen, eta apaizak horregatik kongregaziotik bota zuen. Ondoren, neska gaixotu eta hil egin omen zen, eta apaizaren aginduz zintarik eta estandarterik gabe joan omen ziren neska-mutilak ehorzketara.</p>

Transkripzioa

- Ta esaten zizuen zeoze gaiztua iten ikusi ezkeo, hoi ez zula... "Hijas de Maria" k ez zuela holakoik iten ta...
- Bai, kaso bat hortan kontatuko dizut, ez Aldaban, baiño Asteasun bai. Eske ez da oandio denbora asko aittu deala irratin, irratin eo telebistan, Hernialden, Hernialden uste det, bai, Ernialden agarraun ez zeon itteik. Pekatue zan oso haundie. Eta Tolosan bai. Eta ez zitzaion sartzen burun Tolosan ez baldin bazan pekatu, Hernialden nola izango zan pekatue? Ba, Asteasun´e pekatue emen zan dantza ittea. Villabonan ez. Eta neska gazten batek dantzan in, agarrauen in, han Asteasun, ta apaizek kongregaziotiken bota. Ta kongregaziotiken botatakon, gero, ez [zeben] kongregazioko zintakin ez zeken juteik. Baiño hemen´e bazien botatakok. Ta geo ez zeken juteik gehio, jaune hartzea jun zitzezken, baiño zintakin ez, zintakin kanpoan gelditzen zan. Ta Asteasun neska hoi in emen zan ondorenen gaixotu ta hil. Eta entierroa. Ta ez neskak eta ez motillek, danak jun zien zintaik gabe. Ta, gaiñea, ateatzen zan estandarte. Hemen egongo die /egongoie/ gordeta oain´e. Luistarrak zeukean San Luisekin beren estandarte. Ta emakumek zeukean beren estandarte. Eta, ordun, entierrokon, atea behar zuen estandarte hoik. Baiño nola ez baizan, botata nola baizeon, ba, estandarte hoik ez zittuen atea. Eta, ondorenen, gaztek´e oso hasarratu ein emen zien, ta esan emen zuen: "Ba, jai bat jari behar deu ta danok-danok ein behar deu dantza agarraun, aber danok bialtzen gaittun". Ta ordun bukatu emen zan Asteasukoa. Hoi hemen bazan —oain hil zan— Asteasuko emakume bat, ta harek askotan kontatu zian. Pentsatu ze autoridadea zeukean apaizak. Ze autoridadea zeukean! Ze umillazioa hoi. Pentsatu, famili harentzako, neska haren... garai hartan, neska haren familintzako ze izango zan. Hemezortzi-hemeretzi urtekin neska hil ta entierroa ia nulo.

8. Tolosan libre zena Aldaban bekatu

- **Erref:** TOL-028/018
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:27:43. **Bukatu:** 00:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Herri txikietan debekatuta zegoen lotuan dantza egitea, eta ia herri gehienetan neskaren bat bota zuten dantza lotuan egin izanagatik. Tolosa eta Alegian, berriz, libre zen dantza lotuan egitea.</p>

Transkripzioa

- Kongregaziotik botatako emakume bat beti´re [...]?
- A, bai, gaizki ikusia... Ezkontzeaiño ez dakit allegatzen zien, baiño guraso askontzako-ta behintzat... ez dakit. Ze, dantza pixkat ittea. Ta, esaten dizut /esateizut/, Asteasun ez zeon itteik eta Villabonan bai.
- Aldaban´e ez.
- Buo! Aldaban! Bueno...! Ezta hemen Ikaztegietan´e ez, e? Hemen´e bazien botatakok kongregaziotiken, e? Hemen, Ikaztegietan. Eta Alegrin bai, e?
- Hoi jakiten zan? Holako hoi bota duela kongregaziotik eta...
- Jakingo ez zenun, herri koxkorretan! Eske danok juten giñen ta bagiñikiun "hoi kongregaziotik botata dao".
- Zuek, ordia, Aldabakok izanda, Ikaztegietako zea hoik enteratzen ziñeten?
- Hoixe entenditzen... [...] dana enteratzen giñen! Baiña hemen motibo hoixe izaten zan. Ta Alegrin dantza ittea. Baiño Ikaztegietakok Alegrin in ezkeo, berdin botatzen zuen, e? Eta nik ez dakit nola ez zan... nola ez giñen jabetzen: "Guk zeatik ez deu dantza in ber, Alegrikok itten baldin badue /baue/?" Ta Tolosan eitten zan, eta herri haundietan danatan. Baiño herri txikitan ez. Ta herri txiki askotan, e? Askotan, askotan ez zan eitten.
- Ta hoi bezela diferentzi gehio bazian herri txikin ta herri haundin arten pekatu kontutan?
- Nik uste det apaizek pekatu kontue igualtsu esango zuela. Hoi pekatue igualtsue izango zan. Bakarrrik dantzako hoi zan grabea.
- Ta zuek pentsatuko zenduen, gaiñea, ez? Jarriko ziñeten pentsatzen hoi pekatu zeatik ote zan o ze...?
- Ez dakit gehiegi pentsatu´re itten gendun. Hola egoten giñen. Nola abereei jartzen zaizkie hola tapa batzuk aurea ikusteko? Hoixe.

9. Komunioa hartu aurretik marrubi bat jan zuenekoa

- **Erref:** TOL-028/019
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:29:42. **Bukatu:** 00:31:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Konfesioa nahi zenean egiten zen, baina kongregazio egunerako, denek konfesatu behar izaten zuten. Baraurik joan behar izaten zuten komunioa hartzera ere. Juanak behin marrubi bat jan omen zuen komunioa hartu aurretik, eta ez zaio oraindik ahaztu.</p>

Transkripzioa

- Eta, gaiñontzen, elizako konfesiok-eta noiz izaten zian o nola izaten zian?
- Hoi nahi zuen... nahi zanen. Baiño kongregaziokon konfesatu beharra zeon. Kongregazioa ez ziñen jungo konfesatu bare. Kongregazioa, esaten dizut, hillen lehendabiziko igande hortan jauna hartzea, kongregazioko zintakin hantxe juten giñen.
- Dotore jantzita.
- Oso dotore.
- Eta ze izaten zan? Meza aurretik konfesatzen zan?
- Bai. Por ejemplo, Aldaban ta herri txiki hoitan bai, ze larunbaten ez giñen juten. Meza aurretiken. O beste batzuk juten zien propio Aldabatiken

kuadrillan Aldabaa, o Jesus!, Alegria, konfesatzea. Haik juerga. Neska ta mutil juntatu ta Alegria atsaldea pasatzea. Baiño ohiturak holaxe zeren. Holaxe zeren.

- Eta zuei, apaiza zeon herrin ta zenbait pekatu konfesatzeak igual lotsa gutxi emango zun, baiño beste batzuk gehixe ta...

- Bai, pekatuik eitten al gendun? Ze pekatu eitten gendun? Bueno, bueno! Bai, ze? Amai txokolatea harrapatu diot /harrapatuiot/ eo holako zeren batzuk. Bueno, bueno. Umekeri batzuk zien. Horreatik esaten dizut, gauza asko kanbiatu da oneako. Oneako. Oain mito batzuk dare lehengok. Oain apaizek ez dittue aittu nahiko. Ez dittue aittu nahiko. Gaztek ez dakit, igual pasako due /pasakoue/, baiño zaharrak darenak ez dittue aittu nahiko gauzek, baiño hala die. Egik hola die.

- Ta baraurik jun behar izaten zenduen, gaiñera.

- Bai, bai, bai. Ni gogoratzen naiz behin, umea nitzela, hillen lehendabiziko ostiralen, biden marrubin bat jan. Joe, baiño... marrubie jan nun, baiño komunioa hartu bare ezin geldittu. Etxen edozeiñek esango zun. Ta komunioa hartu nun. Baiño denbora askon euki nun pentsamentu hue, e! Marrubie jan nula, e. Ta ordun, gaiñea, izaten zan mingaiñen hartu ta esaten zuen hortzakin-ta ez zala ikittu behar.

10. Artoa eta babarruna nola egiten zituzten

- **Erref:** TOL-028/022
- **Iraupena:** 0:07:35. **Hasi:** 00:35:41. **Bukatu:** 00:43:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Babarruna eta artoa batera egiten zituzten, maiatzean. Gero jorratu eta bakandu egiten zuten artoa. Irailaren bukaera aldera jasotzen zuten uzta: lehenik babarruna, eta artoa ondoren.

11. Babarrunak lehortu eta jo

- **Erref:** TOL-028/023
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:43:16. **Bukatu:** 00:46:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Babarrun lekak etxean lehortzen ziren, gero eskuz aletu beharrik ez izateko. Gero makilarekin joz jalkitzen zen alea. Haizea botatzen zuen makina bat ere bazuten etxean, alea eta leka banatzeko.

12. Etxean egindako lastairak eta koltxoiak

- **Erref:** TOL-028/026
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:47:38. **Bukatu:** 00:52:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Lehenago, artoaren zurikinik finenarekin lastairak egiten omen zituzten, koltxoien azpian jartzeko. Koltxoiak ere etxean egiten zituzten, erositako artilearekin.

13. Koltxoien artilea jo, eta azalak garbitu

- **Erref:** TOL-028/030
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:53:54. **Bukatu:** 00:55:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Artilezko koltxoiak jo egiten ziren, garbitzeko. Juanaren etxean urtean behin jotzen ziren. Koltxoiaren azalak ere garbitu egiten ziren.

14. Koltxoiaren azalak nola egin

- **Erref:** TOL-028/031
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:55:23. **Bukatu:** 00:57:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Koltxoiaren azalak egiteko telak oso onak izaten omen ziren. Erosi egin zitezkeen, baina, josten zekienak ere etxean egin zitezkeen.

15. Lehengo oheak, oraingo oheak

- **Erref:** TOL-028/032
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:57:27. **Bukatu:** 00:59:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Garai bateko oheak eta oraingoak antzekoak omen dira, neurri kontuak pixka bat aldatu direla susmoa badu ere.

16. Lastairatik "jergoi"-ra

- **Erref:** TOL-028/033
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:59:21. **Bukatu:** 01:02:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Lastairatik "jergoi"-ra pasatu omen ziren, eta artilezko koltxoitik "Pikolinos"-era. Lastaira mota berri horiek ere etxean konpontzen ziren, kanpoan erosten baziren ere.

17. Aitak tresnak, anaiak jostailuak. Zer ikusi, hura ikasi.

- **Erref:** TOL-028/035
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:02:36. **Bukatu:** 01:04:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrian dena aprobetxatzeaz gain, gauza asko etxean bertan egiten ziren. Juanaren aitak, esaterako, arotz lan guztiak egiten zituen, arotza ez bazen Ere. eta orduko umeez ere hala ikasten zuten jostailuak eskuz egiten.

18. Aitak saskiak etxean egiten zituen

- **Erref:** TOL-028/036
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:04:14. **Bukatu:** 01:06:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Juanaren aitak etxean egiten zituen saskiak. Urritzaren egurrarekin egiten zituen, gehienez. Egurrari azala kendu, eta azal harekin saskia egin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com